



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

**PORTUGALETEKO UDALAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, "LA CANILLAKO HAURRENTZAKO JOLAS-EREMUAN GOMAZKO ZORU MOTELTZAILEA ERAIKITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAN" JASOTAKO OBRAK EGIKARITU ETA FINANTZATZEKO**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PARA LA EJECUCIÓN Y FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS INCLUIDAS EN EL "PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONSTRUCCIÓN DE UN SUELO AMORTIGUANTE DE GOMA EN EL ÁREA DE JUEGOS INFANTILES DE LA CANILLA"**

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 30an

En Bilbao, a 30 de enero de 2019

## **BATU DIRA**

## **REUNIDOS**

**MIKEL TORRES LORENZO** jauna, Portugaleteko alkate-udalburua, 2019ko urtarrilaren 11ean Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren arabera jardun dena.


**D. MIKEL TORRES LORENZO**, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Portugalete, actuando en virtud del Acuerdo del Junta de Gobierno de fecha 11 de enero de 2019.

**KEPA ODRIOZOLA AZULA** jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea, Zuzendaritza Batzordearen 2019ko urtarrilaren 29ko erabakiz egintza hau burutzeko eskumena daukana.

**D. KEPA ODRIOZOLA AZULA**, Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha 29 de enero de 2019.

## **ESKU HARTU DUTE**

## **INTERVIENEN**


 Esku-hartzaileek euren erakundeetako presidente eta ordezkari gisa esku hartzen dute. LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa aitortu diote elkarri eta, horretarako, hauxe

Los dos intervinientes actúan como Presidentes de sus respectivas Entidades y en su representación, reconociéndose capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto,

## **ADIERAZI DUTE**

## **EXPONEN**

### **LEHENENGOA.**

 Portugaleteko Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluekin bat etorritik, Estatuko eta autonomia erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetan jarduteko eskumenak ditu: (...) d) Bide

### **PRIMERO.**

Que el Ayuntamiento de Portugalete, de acuerdo con la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, art 25 tiene competencia para ejercer en todo caso como competencias propias, en los términos de la legislación del Estado y de las



azpiegitura eta bere titulartasuneko beste ekipamendu batzuk.

Portugaletoko Udalak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikularekin bat etorri, eskumen propioa balia dezake arlo hauetan: (...) 3) Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea. (...) 16) Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanleguneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.

#### **BIGARRENA.**

Partzuergoaren funtsezko misioa da ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea lurralde-eremua osatzen duten udalerrietan, Partzuergoaren beraren Estatutuen arabera. Horien azken aldaketa 2014ko azaroaren 5eko Batzar Nagusiak onetsi zuen.

#### **HIRUGARRENA.**

Gaur egun, Partzuergoak saneamenduko lehen mailako sarearen zerbitzua ematen du; Udala, aldiz, bigarren mailako sarearen edo udal-estolderiaren arduraduna da.

#### **LAUGARRENA.**

"G2T2/I02 hodi biltzailea optimizatzeko" obrak egikaritu ditu Partzuergoak. Horien bidez lotura- eta inkorporazio-obra hori handitu egin da, portuko hodi biltzailea zerbitzuan jarri zenetik funtzionamenduan zegoena. Hala, hodi biltzailearen gaitasuna handitu eta bere trazaduraren zati bat zuzendu da.

Saneamendu-azpiegitura hori hobetzeko obrak Portugalen egikaritu dira, eta ondorio handiak eragin ditu Manuel Calvo kaleko plazaren inguruan, udalerraren beheko aldean kokatuta dagoena, itsasadarretik gertu.

Comunidades Autónomas, en las siguientes materias (...) d) Infraestructura viaria y otros equipamientos de su titularidad.

Que el Ayuntamiento de Portugalete, de acuerdo con la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en el artículo 17 puede ejercer como competencia propia en los ámbitos de: (...) 3) Ordenación y gestión del uso de servicios, equipamientos, infraestructuras e instalaciones de titularidad pública. (...) 16) Ordenación, gestión y prestación del servicio de alumbrado público, limpieza viaria, acceso a núcleos de población y pavimentación de vías urbanas, así como parques y jardines.

#### **SEGUNDO.**

Que el Consorcio tiene como misión primordial la prestación de los Servicios de Abastecimiento de Agua y Saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen, según sus propios Estatutos, cuya última modificación fue aprobada por la Asamblea General de 5 de noviembre de 2014.

#### **TERCERO.**

Que en la actualidad el Consorcio presta el Servicio de Abastecimiento y Saneamiento en Red Primaria, y el Ayuntamiento es responsable de la Red Secundaria de saneamiento.

#### **CUARTO.**

Que el Consorcio ha ejecutado las obras de "Optimización de la Incorporación G2T2/I02" mediante las cuales se ha ampliado esta obra de incorporación y enlace, en funcionamiento desde la puesta en servicio del Interceptor del Puerto, aumentando su capacidad y rectificando su trazado de modo parcial.

Las citadas obras de mejora de la infraestructura de saneamiento se han ejecutado en Portugalete generando afecciones importantes en la trama urbana existente en torno a la Plaza de la Calle Manuel Calvo situada en la parte baja del municipio próxima a la Ría.



Zehazki, H kolektorearen azken tartea egikaritu ahal izateko (I-02 gainezkabideari lotu aurretiko tartea), La Canilla parkean zegoen haurrentzako jolas-eremua desmuntatu eta kendu behar izan da.

#### **BOSGARRENA.**

Saneamendu-obrak amaituta, Portugaleteko Udala La Canillako haurrentzako jolas-eremuaren amaierako akabera aztertzen ari zen; hori dela eta, ukitutako eremua birjartzeko hormigoi armatuzko zolata eta zimentazioa erabiltzea adostu zen, hurrengo fasean eremua behin betiko birjartze aldera.

#### **SEIGARRENA.**

Portugaleteko Udalak LA CANILLAKO HAURRENTZAKO JOLAS-EREMUAN GOMAZKO ZORU MOTELTZAILEA ERAIKITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA idatzi du; bertan zehaztu da saneamendu-obren ondorioz ukitutako eremuan egikaritu beharreko birjarpen-lana.

Horrez gain, jolas berriak bere kabuz kokatu ostean, Portugaleteko Udalak aisialdirako eremuaren erabilera berreskuratzeko interesa dauka. Horretarako beharrezkoa da saneamendu-obren ondorioz ukitutako eremua behin betiko birjartzea.

#### **ZAZPIGARRENA.**

Partzuergoak egikaritu dituen "G2T2/I02 hodi biltzailea optimizatzeko" obren kontratuaren esparruan, La Canillako jolas-eremuaren birjarpena baldintzatuta geratu zen Portugaleteko Udalak eremu horretako azken konfigurazioa definitu arte. Horrenbestez, LA CANILLAKO HAURRENTZAKO JOLAS-EREMUAN GOMAZKO ZORU MOTELTZAILEA ERAIKITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAN definitutako obren bidez saneamendu-obren ondorioz ukitutako eremua behin betiko birjarriko da.

En concreto, la ejecución del tramo final del colector H previo a su incorporación al Aliviadero existente I-02, ha requerido el desmontaje y la retirada del área de juegos infantiles situada en el parque de la Canilla.

#### **QUINTO.**

Que finalizadas las obras de saneamiento, se encontraba en estudio por parte del Ayuntamiento de Portugalete el acabado final del área de juegos infantiles de la Canilla, motivo por el cual, se acordó realizar la reposición de la zona afectada a base de una cimentación y solera de hormigón armado que permitiera en una fase posterior la reposición definitiva del área.

#### **SEXTO.**

Que el Ayuntamiento de Portugalete, ha redactado el PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONSTRUCCION DE UN SUELO AMORTIGUANTE DE GOMA EN EL AREA DE JUEGOS INFANTILES DE LA CANILLA en el que queda definida la reposición a ejecutar en la zona afectada por las obras de saneamiento.

Así mismo, habiendo procedido por su cuenta a la colocación de nuevos juegos, el Ayuntamiento de Portugalete tiene interés en recuperar el uso del área recreativa, para lo cual resulta preciso efectuar la reposición definitiva de la zona afectada por las obras de saneamiento.

#### **SÉPTIMO.**

Que en el marco del contrato de las obras de "Optimización de la Incorporación G2T2/I02" ejecutadas por el Consorcio, en el área de juegos de la Canilla la reposición realizada quedó condicionada a la definición de la configuración final de la zona por parte del Ayuntamiento de Portugalete y por tanto, las obras definidas en el en el PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONSTRUCCION DE UN SUELO AMORTIGUANTE DE GOMA EN EL AREA DE JUEGOS INFANTILES DE LA CANILLA constituyen la reposición definitiva de la zona



afectada por las obras de saneamiento.

#### **ZORTZIGARRENA.**

Bi erakundeek LA CANILLAKO HAURRENTZAKO JOLAS-EREMUAN GOMAZKO ZORU MOTELTZAILEA ERAIKITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAN definitutako obrak gauzatzeko interes handia daukate, eremua behin betiko birjartzeko eta eremu horretako aisialdirako erabilera lehengoratzeko.

#### **BEDERATZIGARRENA.**

Administrazio Publikoen arteko harremanetan bete beharreko lankidetzaren printzipioa kontuan hartuta, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 141.1.d artikuluan ezarritakoa dela bide.

Esku-hartzaileek lankidetzaren hitzarmen hau formalizatu dute, honako klausula hauen arabera:

#### **OCTAVO.**

Que ambas Entidades tienen el máximo interés en que se lleven a cabo las obras definidas en el referido PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONSTRUCCION DE UN SUELO AMORTIGUANTE DE GOMA EN EL AREA DE JUEGOS INFANTILES DE LA CANILLA, a fin de reponer definitivamente la zona y restituir el uso recreativo del área.

#### **NOVENO.**

Que teniendo en cuenta el principio de cooperación que debe observarse en las relaciones entre Administraciones Publicas, a tenor de lo establecido en el Artículo 141.1.d de la Ley 40/2015 de régimen Jurídico del Sector Público.

Los Intervinientes proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

## **KLAUSULAK**

#### **LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDE DIREN LANAK**

Hitzarmen honen xede diren lanak Portugaleteko Udalak egin duen LA CANILLAKO HAURRENTZAKO JOLAS-EREMUAN GOMAZKO ZORU MOTELTZAILEA ERAIKITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAN definitu direnak dira. Kontrata bidezko **21.522,27 EUROKO** aurrekontua dute (BEZa barne) eta **astebeteko** egikaritze-epea.

Plegu horretan definitutako jarduketaren baitan, UNE-EN 1177 arauan jasotako zoru moteltzailea eraikiko da La Canillako haurrentzako jolas-eremuan.

Zoladura berria jarraitua izango da eta birziklatutako SBR materialarekin eta erretxina-

## **CLÁUSULAS**

#### **PRIMERA.- OBRAS OBJETO DEL CONVENIO**

Las obras objeto del Convenio son las definidas en el "PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONSTRUCCION DE UN SUELO AMORTIGUANTE DE GOMA EN EL AREA DE JUEGOS INFANTILES DE LA CANILLA" elaborado por el Ayuntamiento de Portugalete, que alcanzan un Presupuesto Ejecución por Contrata, IVA incluido, de **21.522,27 EUROS** y un plazo de ejecución de **1 semana**.

La actuación definida en el citado Pliego se refiere a la construcción de un suelo amortiguante según normativa UNE-EN 1177 para el área de juegos infantiles de la Canilla.

El nuevo pavimento será de tipo continuo formado por una capa de aglomerado de resina



aglomeratuarekin egindako geruza batez osatuta egongo da. Jolasen erortze-altueraren arabera, lodiera eta HJC (Head Injure Criteria) desberdinak erabiliko dira, UNE-EN 1177 arauan jasotakoa betez. Halaber, erretxin espezifikoak eta EPDM bulkanizatuz egindako 1 cm-ko azken geruza bat jarriko da, koloretakoa eta marrazkiekin.

#### **BIGARRENA.- PROIEKTU TEKNIKOA**

Obren balorazio ekonomikoa eta irismena kontuan hartuta, Portugaleteko Udalak Baldintza Teknikoen Plegu batean definitu ditu lanak, horiek egikaritzeko eta kontratatzeke oinarri gisa erabiliko direnak.

#### **HIRUGARRENA.- LURZORUAREN KUDEAKETA**

Hitzarmenaren xede diren obrak udal titulartasunekoak den lurzoru batean garatuko dira.

Portugaleteko Udalak konpromisoa hartzen du Hitzarmen honen helburu diren obrak zuzen eta erabat gauzatzeko baimenak eta lursailen erabilgarritasuna eskuratzeko.

#### **LAUGARRENA.- LANEN KONTRATAZIOA**

Obren kontratazio-organoa Portugaleteko Udalaren baitan ahalmen hori daukana izango da.

Horrenbestez, organo horrek kontratazio-prozedura osorik izapidetzeko betebeharrak izango du, bere dituen ahalmenen eta erregimenaren arabera.

Hori guztia dela eta, Portugaleteko Udalari dagokio obrak adjudikatzea, Kontratazio Mahaiak hala proposatuta, eta Ur Partzuergoari horren berri ematea.

#### **BOSGARRENA.- LANEN ZUZENDARITZA**

Behin lanak kontratatu eta beharrezko baimen guztiak eskuratu ostean, Portugaleteko Udaleko teknikariek zuzenduko dituzte obrak.

y SBR reciclado aportando diferentes grosores dependiendo de la altura de caída del juego y de la HIC (Head Injure Criteria) recogido en la norma UNE-EN 1177 y una capa de terminación de 1 cm formada por resinas específicas y EPDM vulcanizado en color formando dibujos.

#### **SEGUNDA.- PROYECTO TÉCNICO**

Que dado el alcance y valoración económica de las obras, el Ayuntamiento de Portugalete ha realizado su definición en un Pliego de Condiciones Técnicas que servirá de base para la contratación y ejecución de las obras.

#### **TERCERA.- GESTIÓN DE SUELO**

Las obras objeto del Convenio se desarrollarán en suelo de titularidad municipal.

El Ayuntamiento de Portugalete se compromete a la obtención de las autorizaciones y disponibilidad de terrenos que exijan la correcta y total ejecución de las obras objeto del presente Convenio.

#### **CUARTA.- CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS**

El órgano de contratación de las obras será el que tal potestad ostente en el Ayuntamiento de Portugalete.

En consecuencia, será obligación de éste la tramitación completa del procedimiento de contratación, de acuerdo con las facultades y el régimen que le son propios.

Por todo ello, corresponderá al Ayuntamiento de Portugalete la adjudicación de las obras, a propuesta de la Mesa de Contratación, dando cuenta de la misma al Consorcio de Aguas.

#### **QUINTA.- DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**

Las obras, una vez contratadas y disponiendo de todas las autorizaciones precisas, serán dirigidas por técnicos del Ayuntamiento de Portugalete.





#### **SEIGARRENA.- LANEN FINANTZAKETA**

Obren finantzaketa Ur Partzuergoaren kontura izango da.

Obren zenbatekoa, kontrata bidezko 21.522,27 EUROKO egikaritze-aurrekontua duena (BEZa barne), Ur Partzuergoak ordainduko du 2019ko urterokoan eta kontabilitateko partida honen kontura: "943.11-730.01 Ayuntamiento de Portugalete. A los ayuntamientos Consorciados".

Jarduketan titulartasuna zein birjartze- eta mantentze-lanetarako betebeharra Portugaleteko Udalarena da erabat; Ur Partzuergoak ez du horren gaineko erantzukizunik hartuko.

Halaber, hitzarmen honen xede diren lanak egikaritzeko beharrezkoak diren lursailen besterentzei eta Obren Zuzendaritzari dagokien kostua Portugaleteko Udalak ordainduko du.

Hori guztia ikusita, hitzarmenean parte hartzen duten alderdiek aurrekontu-gordailu nahikoak egin beharko dituzte nork bere gain hartutako betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko.

#### **ZAZPIGARRENA.- EKARPENEN ORDAINKETA**

Obrak amaitzen direnean, Portugaleteko Udalak obren azken ziurtagiria izapidetu eta igorri beharko du, eta Ur Partzuergoari horren kopia bat helaraziko dio.

Ur Partzuergoaren gehieneko ekarpena seigarren klausulan definitutako zenbatekoa izango da, eta erakunde horrek ez du obrak egikaritzen diren bitartean sor daitekeen garestitzerik ordainduko. Halakorik gertatzen bada, Portugaleteko Udalak hartuko du gehikuntza hori bere gain.

#### **ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Hitzarmen honetan erabakitakoaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde bat eratuko da.

#### **SEXTA.- FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS**

La financiación de las obras corresponderá al Consorcio de Aguas.

El importe de las obras, cuyo Presupuesto Ejecución por Contrata, IVA incluido, asciende a 21.522,27 EUROS será abonado por el Consorcio de Aguas en la anualidad de 2019 y con cargo a la partida contable "943.11-730.01 Ayuntamiento de Portugalete. A los ayuntamientos Consorciados".

La titularidad de las actuaciones, así como la obligación de mantenimiento y reposición corresponderá íntegramente al Ayuntamiento de Portugalete, no adquiriendo el Consorcio de Aguas ninguna responsabilidad a tal respecto.

Asimismo, el coste correspondiente a las expropiaciones de los terrenos necesarios para la ejecución de las obras como a la Dirección de las Obras objeto del presente Convenio, será de abono íntegro por el Ayuntamiento de Portugalete.

A la vista de lo anterior cada una de las partes que intervienen en el Convenio se obligan a efectuar las consignaciones presupuestarias suficientes para hacer frente a las obligaciones económicas que contraen.

#### **SÉPTIMA.- ABONO DE LAS APORTACIONES**

Una vez terminadas las obras el Ayuntamiento de Portugalete tramitará y emitirá la certificación final de las obras debiendo remitir copia de la misma al Consorcio de Aguas.

La aportación del Consorcio de Aguas tendrá como valor máximo el importe definido en la cláusula sexta, no correspondiendo a esta entidad el abono de incrementos que se puedan producir durante el transcurso de la ejecución de las obras, los cuales en caso de producirse, serán de cuenta del Ayuntamiento de Portugalete.

#### **OCTAVA.- COMISION DE SEGUIMIENTO**

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

Batzorde hori lau pertsonak osatuko dute: Udaleko bi ordezkariak eta Partzuergoko beste bik.

Seguimiento que estará integrada por cuatro personas, dos por parte del Ayuntamiento y dos por parte del Consorcio.

Batzordearen xedea izango da hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alderdien arten sortzen diren arazo teknikoak, ekonomikoak eta kolaboraziozkoak argitzea.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

### **BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA**

Hitzarmen honek ondorioak izango ditu eta esku-hartzaileak behartuko ditu sinatzen denetik aurrera eta obrak amaitu ostean Ur Partzuergoak ordainketa egiten duen arte.

### **NOVENA.- EFECTOS Y DURACION DEL CONVENIO**

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma y durará hasta que se realice pago del Consorcio de Aguas una vez finalizadas las obras.

### **HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN AMAIERA**

Hitzarmen hau aurreko klausulan jasotako indarraldia igarotzen denean edo ebazpen bidez iraungiko da.

### **DECIMA.- EXTINCION DEL CONVENIO**

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en la cláusula anterior o por resolución.

Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste alderdiak hitzarmenaren betearazpen zorrotza edota ebazpena eskatu ahal izango ditu.


El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución.

Kontratua indargabetuz gero, alderdiek egikaritzeke dauden jarduketak ordaindu eta amaitzeko baldintzak zehaztuko dituzte.


En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutako bi alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.



Mikel Torres Lorenzo  
Portugaleta Udaleko alkate-udalburua  
Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Portugaleta



Kepa Odriozola Azula  
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea  
Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia